

[Eusk/Cast] Lurraren defentsan 5000 lagun manifestatu dira Gasteizen

EUSKAL HERRIA BIZIRIK :: 23/05/2023

5000 personas se manifiestan en Gasteiz en defensa del territorio:

[Euskara]

Lurraren defentsan 5000 lagun manifestatu dira Gasteizen

Euskal Herri osotik etorritako 5000 lagun manifestatu dira gaur arratsaldean Gasteizen, landa-eremuari eta naturguneei erasotzen dieten makroproiektuak arbuiatzeko eta geldi daitezen exijitzeko. Araba, Ipar Euskal Herria, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako kide banak eraman dute "LURRAREN DEFENTSAN, EUSKAL HERRIA BIZIRIK!" zioen buruko pankarta, eta Arabako lautadako nekazariak beren traktorerekin ireki diote bidea mobilizazioari, jarraian zenbait irudi adierazgarriak (elefante txuria, aerosorgailuak, heriotza, Tapia Andrea eta IBERDROLAko ordezkariak dirua banatzen jendartearen borondatea

erosteko asmoz). Segidan, pankarta ugari tartekatu dira, hain zuzen ere hainbat herritan proiektu erasokorrak gelditzeko egiten ari diren borrokei eta aldarrikapenei ikusgarritasuna emanez. Manifestariak lurraren defentsan etengabe egin dituzte aldarrikapen oihu eta kantak. Aipagarria da azken urte eta hilabeteen gure mendiak eta landa-eremuak zentral eolikoz eta fotovoltaikoz josi nahi dituzten makroproiektuen aurkako aldarriak izan direla gehien entzun direnak, "MENDIETAN EZ!" dioten banderola ugari ere eraman dituelarik jendeak. Halaber, "AMALURRA DEFENDA DEZAGUN", "LURRAREN OSASUNA, DENON ETORKIZUNA", "LANDA-EREMUAK BIZIRIK", "TAPIA LEGEA, INPOSAKETA DA", "EL VERDE DE IBERDROLA NO NOS MOLA", "ZUEN NEGOZIOA, GURE KOLAPSOA", "BANKU MUNDIALA ALIANTZA KRIMINALA" eta "ESE PTS VA CONTRA LA GENTE" bezalako oihuak egin dira. Azken aldarri horiekin, hain zuzen, Jaurlearitzak berriki onartu duen "Energia Berriztagarrien Plan Sektoriala"rekiko errefusapena adierazi du jendeak, baita datorren astean Barakaldoko BEC-ean klima larrialdiaren aitzakiaz baliatuz elite ekonomikoek sustazen dituzten negozio berriak bultzatzen jarraitzeko elkartuko den Munduko Bankuaren konferentzia salatu ere. Manifestazioan hainbat talde eta erakunde sozialek pankarta desberdinak eraman dituzte bestalde, mobilizazioak jaso duen sostengu zabalaren adierazle.

Manifestazioaren ibilbidearen erdian, komunikabideei adierazpenak egin dizkiete mobilizaziora bildu diren Ipar Euskal Herriko OSTIA sareak (Ellande Alfaro), Nafarroako NEE-TEN (Nafarroako Energia Eraldatzen) koordinadorak (Nuria Madotz) eta Bizkaiaiko Interkonexio Elektriakoari Ez taldeko (Alvaro Campos). **"Lurra merkantzia bilakatzearen kontrako borroka funtsezkoa da, bizia bera baita jokoan"**, azpimarratu

du Iparraldeko OSTIA sareko kideak (**Adierazpen guztiak idatziz atxikita doaz**).

Manifestazioaren amaiera ekitaldian jendez eta aldarrikapenez bete da Foru Plaza. Hor, **Josebe Blancok** --Antzuolako baserritarra-- eta Labrazako alkateak,

Begoña Martinez de Olkoz, irakurri dute **manifestazioaren adierazpena**; haiekin batera, Laponian Statkraft enpresaren makroproiektu eoliko baten aurka borrokan ari den **Sami herri indigenaren Kontseiluko kide Eva Fjellheimek** hartu du hitza. Salatu dutenez, azken aldian **mega-proiektu-uholde izugarria** bizitzen ari gara, **eremu naturalak industrializatu eta pribatizatzen dituztenak eta landa-eremuak suntsitzen dituztenak**, ematen diguten bizitzari eusteko funtzioak funtsean aldatuz. Bestalde, administrazioek **enpresa handien interesei lehentasuna** ematen dietela salatu dute, eta parlamentuetatik **mega-proiektu horien garapena errazteko legeak** onartzen direla, hala nola **Tapia legea eta Nafarroako homologoa**, zeinek lurralde horietako **udalen eta kontzejuen erabaki-ahalmena baliogabetzen duten**. Energiaren eta klima aldaketaren auziari buruz, **"merkatuaren logikak produktuen eta energiaren kontsumo neurrigabe eta zorora bultzatzen gaituela"** ohartarazi dute, gaineratuz **"trantsizio energetikoa eta deskarbonizazioa bezalako terminoek beren esanahia galtzen dutela, gaur egungo krisi ekosoziala eragin duten bereberek behin eta berriz erabiltzen dituztenean. Erabakiak pertsonengan jarriko dituzten politikak behar ditugu, eta ez kapitalaren interesetan oinarritutakoak"** (**Manifestazioaren amaiera mezua atxikita bidaltzen dugu**).

Eva Fjellheimek gaur egungo trantsizio energetiko deiturikoa orain arte bere herriak pairatu duen desjabetzearen jarraipena baino ez dela eta Neokolonialismo Berde salatu du. Bereziki azpimarratu du **STATKRAFT** enpresak Sami komunitatearen eremuetan eraikitako zentral eoliko erraldoi batek beraien bizimodua, kultura eta giza eskubideak urratzen dituela epaitu duela Norvegiako Auzitegi Gorenak.

Horregatik, **herriz herri lurraldearen defentsan makroproiektuak geldiarazteko egiten ari diren borrokak segitzeko eta elkarren artean sostengatzeko dei egin dute.**

Manifestazio-deialdiaren **adierazpenak 80 baino gehiago talde eta erakunde sozialen atxikimendua bildu du bestalde**

[Castellano]

5000 personas llegadas desde distintos puntos de Euskal Herria se han manifestado esta tarde en

Gasteiz para manifestar el rechazo a los macro-proyectos que agreden el territorio y exigir su paralización. La pancarta con el lema "LURRAREN

DEFENTSAN, EUSKAL HERRIA BIZIRIK!" que ha encabezado la movilización ha sido portada por personas de distintos colectivos de Araba, Ipar Euskal Herria, Nafarroa, Bizkaia y Gipuzkoa. Varios tractores de agricultores de la llanada alavesa han abierto la marcha, seguidos de distintas representaciones reivindicativas (elefante blanco, aerogeneradores, la muerte, la Sra. Tapia y un representante de IBERDROLA repartiendo dinero comprando voluntades). A continuación, han desfilado numerosas pancartas de grupos locales que han dado visibilidad a las numerosas luchas locales que se vienen desarrollando por poner freno a agresivos proyectos. Las manifestantes han coreado continuamente consignas y cantos reivindicativos, resaltando las reivindicaciones contrarias a los macro-proyectos eólicos y solares con los que se quiere llenar nuestros montes y zonas rurales. La gente también ha llevado numerosas banderolas con el lema "MENDIETAN EZ!". Además, se han gritado consignas como "AMALURRA DEFENDA DEZAGUN", "LURRAREN OSASUNA, DENON ETORKIZUNA", "LANDA-EREMUAK BIZIRIK", "TAPIA LEGEA, INPOSAKETA DA", "EL VERDE DE IBERDROLA NO NOS MOLA", "ZUEN NEGOZIOA, GURE KOLAPSOA", "BANKU MUNDIALA ALIANTZA KRIMINALA" Y "ESE PTS VA CONTRA LA GENTE". Con estas últimas consignas, la gente ha manifestado el rechazo al "Plan Territorial Sectorial de las Energías Renovables" aprobado la semana pasada por el Gobierno Vasco, a la vez que se ha denunciado la Conferencia organizada la próxima semana por el Banco Mundial en el BEC de Barakaldo para seguir fomentando los nuevos negocios que impulsan las élites económicas bajo el paraguas de la lucha contra el cambio climático. Por otra parte, distintos grupos y organizaciones sociales se han unido a la marcha con sus pancartas, poniendo de manifiesto el amplio respaldo social que ha recabado la movilización.

A mitad de la marcha, participantes de la red OSTIA de Ipar Euskal Herria (Ellande Alfaro), la coordinadora NEE-TEN, Nuria Madotz (Transformando la Energía de Navarra) y Alvaro Campos del grupo Interkonexio Elektrikorik Ez de Gatika (Bizkaia) han realizado declaraciones a los medios de comunicación. ***"La lucha contra la conversión de la tierra en mercancía es fundamental, ya que está en juego la vida"***, ha remarcado el miembro de la red OSTIA de Iparralde (**se adjuntan todas las declaraciones**).

El acto final de la manifestación las asistentes han abarrotado la Plaza de los Fueros a la vez que numerosas pancartas reivindicativas la han rodeado. Ahí, la lectura del mensaje final ha ido a cargo de **Josebe Blanco** --baserritarra de Antzuola-- y **la alcaldesa de Labraza (Begoña Martínez de Olcoz)**; junto con ellas, ha intervenido **Eva Fjellheim, participante del Consejo del pueblo indígena Sami**, en lucha contra un macroproyecto eólico de la empresa Statkraft en Laponia. Han denunciado que estamos viviendo actualmente una tremenda **oleada de mega-proyectos que industrializan y privatizan las zonas naturales y asolan las zonas rurales**, modificando sustancialmente las funciones de sostenimiento de la vida que nos proporcionan. Además, desde las administraciones se da **prioridad**

a los intereses económicos de las grandes empresas y desde los parlamentos se están aprobando leyes para facilitar el desarrollo de estos mega-proyectos, como la ley Tapia y su homóloga navarra, que invalidan la capacidad de decidir de los ayuntamientos y concejos de los territorios afectados. Respecto a la cuestión de la energía y del cambio climático, han advertido que *"la lógica del mercado nos empuja a un consumo frenético de productos y energía"*, añadiendo que *"términos como transición energética o descarbonización carecen de significado cuando son utilizados de forma reiterada por los mismos que han provocado la actual crisis ecosocial. Necesitamos políticas donde las personas decidan y no los intereses del capital"* (se adjunta del mensaje final de la manifestación)

Por su parte Eva Fjellheim ha denunciado que la actual llamada transición energética no es sino la continuación de la expropiación histórica a la que se enfrenta su pueblo y un Neocolonialismo Verde. En particular ha remarcado que una macrocentral eólica construida por la empresa STATKRAFT en su territorio ha sido declarada ilegal por el Tribunal supremo de Noruega por vulnerar los modos de vida, la cultura y los derechos humanos de la comunidad Sami.

Por ello, han realizado un llamamiento a continuar las luchas que se vienen realizando por la paralización de los macroproyectos en muchos pueblos y a apoyarse mutuamente en la lucha para defender el territorio.

Más de 80 grupos y organizaciones sociales han comunicado su apoyo a la declaración de convocatoria de la manifestación

<https://eh.lahaine.org/eusk-cast-lurraren-defentsan-5000>